



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2018/19 DENBORALDIA

22ZK.DUN ZIRKULARRA

ARETO FUTBOLEKO EMAKUMEZKOEN EUSKAL KOPA

Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, Batzar Nagusian denboraldi honetarako Txapelketa Oinarriari jarraiki, aipatutako Euskal Kopa hau antolatu du, honako arauak oinarri

1. KLUB PARTAIDEAK

Bizkaia eta Gipuzkoa Lurralde Federakundeetako Emakumezkoen Areto Futboleko lehiaketetako Txapeldunak parte hartuko dute.

Lehiaketa honen Txapelduna Nazional Mailako Emakumezkoen Bigarren mailara igotzeko fase jolastuko du CNFS-aren 14 Zirkularra ezartzen duen moduan.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Partida bakarreko kanporaketa eredian jolastuko da, EFF-FVF ko Araudi Orokorreko 102 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Partida eta gero markagailuan berdinketa egongo balitz, talde bakoitzak 3 penalti botako lituzke, jaurtiketa alternatiboki eginik, hau da, lehenengo penaltia talde batek eta gero besteak, horrela talde bakoitzak dagozkion hiru jaurti arte. Jaurtiketa hasi baino lehen, zein hasiko ote den jakiteko zozketa egingo da irabazlea aukeratuz nork jaurtiko duen lehen, eta ate berberaren aurrean jokalaria desberdinek jaurti beharko dituzte beraien taldeen penaltiak. Gol gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Hiru jaurtiketak egin eta gero berdinketak jarraituko balu, jaurtiketak ordenu berean jarraituko dute, banan-banan, eta lehen jaurtiketak egin ez dituzten beste jokalaria batzuk egin beharko dituzte jaurtiketak, jaurtiketa kopuru berdina egin eta gero, bi taldeetako batek tanto baten diferentzia lortu arte, eta honela garaile izanik.

Partida bati hasiera eman ahal izateko, talde bakoitzak joko-eremuan, eta partida jokatzeke prest, gutxienez sei jokalaria aurkeztu beharko ditu, taldeko ordezkari batez gainera.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

3. DATA ORDUA ETA LEKUA

Partida jolasteko data ofiziala maiatzak 18an izango da 18.00tan Ordiziako Majori Polikiroldegian.

4. EPAILEAK

Dagokion erreziboaren ordainketa Areto Futboleko Epailen Euskal Batzordearen kontura burutuko da.

5. SARIAK

Talde txapeldunari kopa eta 15 domina talde partaide bakoitzari.

6. ZIGORRAK

Lehiaketa honen berezitasunengatik, Ligako zigorrak ez dute efekturik izango bertan, geratuz hurrengo denboraldirako betetzeko geratuz.

Hau guztia klub lehiakide, Bizkaia eta Gipuzkoako Futboleko Lurralde Federakunde eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari jakinarazten zaie, bere ezagutzarako eta dagozkion ondoriotarako.

2019ko maiatzak 8 Bilbon

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General